

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Asturias eta Vianako Printzeak 2014ko Kulturaren “Vianako Printzea” Sariaren banaketa-ekitaldiaren buru izango dira asteazken honetan, Leiren

Ekitaldian aurreko urteetako sarituak izango dira, sariaren XXV. edizioa dela-eta

Viernes, 30 de mayo de 2014

Asturias eta Vianako Printze Errege Gorentasunak 2014ko Kulturaren “Vianako Printzea” Sariaren banaketa-ekitaldiaren buru izango dira asteazken honetan, ekainak 4, Leireko San Salvador Monasterioan. Sari hori Nafarroako Gobernuak ematen du eta aurtengo edizioan Tarsicio Azcona historialariari egokitu zaio (Jesus Morrás Santamaría da haren izen zibila).

Sariaren XXV. edizioa betetzen da aurten, eta, arrazoi hori tarteko, aurreko urteetako sarituak ere gonbidatu dira eta oroigarri bat jarriko da.

Ekitaldia 11:40an hasiko da Ostatuko Patioan, Felipe jauna eta Letizia Andrea buru direla, eta bertan izango dira ere: saritua, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina; Gobernuako kideak, Foru Komunitateko agintari politiko eta instituzional nagusiak, Nafarroako Kultura Kontseiluko kideak, eta Tarsicio de Azconaren senide nahiz adiskideak. Ekitaldian Yolanda Barcina Lehendakariak, sarituak eta Felipe Errege Gorentasunak esku hartuko dute; horrekin batera, Iruñeko Orfeoak zenbait musika-interpretazio emango ditu.

Nafarroako Erregeei omenaldia eta abadia-organoaren inaugurazioa

Sari-banaketa amaitu ondoren, 12:15ean, Asturias eta Vianako Printze Errege Gorentasunak, Nafarroako Gobernuako kideekin eta Foru Komunitateko nahiz Parlamentuko lehendakariekin batera, abadia-elizara joango dira, eta bertan organoa inauguratzen ikusiko dute, berriki zaharberitutakoa, eta Nafarroako Erregeen Omenaldian parte hartuko dute.

Lehenik eta behin, musika-tresna inauguratuko da eta, arrazoi hori dela-eta, Leireko abade mitradunak esku hartuko du eta kontzertu txiki bat emango da. Jarraian, Nafarroako Erregeei omenaldia egingo zaie: hitzaren liturgia bat izango da, Iruñeko artzapezpiku nahiz Tuterako gotzain Francisco Pérez González izango du buru eta monasterioko komunitate beneditarreko abade eta apaizek emango dute meza. Ekitaldian zehar, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak zilarrezko kutxa batean monasterioko kultuari eusteko erakundeek egindako dohaintza sinbolikoa emango du.

Hura amaitzen denean, agintariak tenpluko iparraldeko hormara joango dira; han dago Iruñeko Erreinuko lehen Erregeen hilobia, Nafarroako erreinuaren aitzindaria, eta haien artean ageri dira: Iñigo Arista (Iruñeko lehen erregea, IX. mendea), García I Iñíguez (IX. mendea), Fortún Sánchez (Iñiga dinastiako azken erregea, IX. mendea), Sancho I Garcés (X. mendea), García Sánchez (X. mendea) eta Sancho Garcés Abarca (X. mendea). Gorpuzkiak zaintzen dituen egurrezko kutzaren aurrean, Felipe Errege Gorentasunak lore gorritz osatutako koroi bat utziko du, eta bertan honako hitz hauek irakurriko dira: “Felipe eta Letizia, Asturias eta Vianako Printzeak”.

Ekitaldiaren musikaz Monasterioko Monjeen abesbatza eta Zangozako Nora abesbatza arduratuko dira.

Sari-banaketa nahiz Nafarroako Erregeei egindako Omenaldia Foru Komunitate guztian ikusi ahalko dira Navarra Televisiónek egingo suen zuzeneko saioan. Hedabide horrek sari-banaketa ere diferituan emango du 22:00etatik aurrera.

Leirera egindako bisita amaituko da, Tarsicio de Azcona eta haren senideekin egindako bilera batekin eta agintariei nahiz ekitaldira bertaratutako gainerako guztiei egindako harrera labur batekin.